

**EZBAIAN** ▶ Ika-mika sortu da Parte Zaharreko Trinitate plazaren harira. Arkitektu talde batek plazak lehengo itxura berreskuratzea nahi du, Udalak frontoia estaltzeko asmoa duela baitiote. Auzotarrek, berriz, plazak kirolgune izan behar duela esan dute behin baino gehiagotan, beste tokirik ez dutelako.

**SANTOS BAREA** (AZKENA ARKITEKTU TALDEAREN IZENEAN)

## Trinitate plazaren defentsan

**I**datzi honen bidez Trinitate plazak bizi duen utzikeria egoera salatu nahi dugu. Izan ere, Luis Peña Gantxegik 1961ean egindako Trinitate plaza hiriko arkitektura eta hirigintza eremurik garrantzitsuenetako bat da.

Ezbairik gabe, naturaren zuzeneko presentzia da Donostiako hiriaren ezaugarriarik garrantzitsuenak. Luis Peña Gantxegik pentsatutako eta egindako Trinitate plaza naturaren eta eraikitakoaren arteko ereduzko akordioa da; finean, hiriaren arima dei genezake. Hiriaren gainean zuzenaren grabitazioaren mendia hiri ikuspegiarekin berrinterpretatzen du

plazak. Naturaren presentzia inplizitu horrek sortzen duen ustekabea ezin hobe adierazten du Trinitate plazak. Espazio honek bisitariari emozioa sorrazten dio, eta Donostiako urbanizazioaren toki iradokitzaile, funtsezko eta ordekaezina bilakatu da.

Luis Peña Gantxegik egitasmoak batasun atmosferan lortu du. Ondorioz, arkitektura pribatua eta publikoa maisuki lotzen dituen mikrokosmos urbanoa lortu da. Dimentsio txikiko tokiak da, baina eduki askokoa. Finean, sartutako arkitektura berriak bikain betetzen du arkitektura egitasmo batek izan dezakeen helburu

nagusia: esistitzen denari zentzua ematea, alegia.

Hala ere, Trinitate plazak egun duen egoera penagarria da. Ez soilik bizi duen arduragabekeria egoeragatik, baizik eta duela denbora gutxi egindako zoritxarreko hainbat esku hartzerengatik. Hala nola, bolatokia itxea, frontoiaren materiala eta kolorea aldatzea, eskubaloi pista jartzea... Esku-hartze horiek gutziek, plazara sartzea eragozten duten hesiak jartzearekin batera, Trinitate plazari izaera marjinala eman diote. Trinitate plazak ez du hori merezi, batez ere, bere kalitate ukaezinarengatik.

Hori dela eta, Udalarri eskatzen diogu Trinitate plaza zaharberritu dezala, 60ko hamarkadako lehen urteetan Luis Peña Gantxegik egin zuen bezala. Plaza hiritar gutzietan dagokien leku publiko bezala berreskuratu behar da, eta ez hiritar batzuen arazo sektorialak konpontzeko toki bezala. Zaharberritzea Peña Gantxegik egin zuen bidetik gitea eredugarria izango litzateke Udalak etorkizunerako aurreikusita dituen esku-hartzeetarako, eta kulturen sakontzea ahalbideratuko luke. Hiriak dituen gauza onak baloratzeak eta gauza berrien gurte hutsean ez erortzeak hirigintza politika izena merezi duen edozein politikaren lehen urratsa izan behar luke, eta hau da, ezbairik gabe, Trinitate plazaren kasua.

**BORJA RUIZ** (PARTE ZAHARREKO XIRIMIRI GAZTE TALDEKO BEGIRALEA)

## Parte Zaharreko auzotarron hitza

**A**zken egunotan IRUTXULOKO HITZAK argitaratutakoaren arabera, zenbait arkitektoek Trinitate plazak lehengo itxura berreskura dezan eskatu dute prentsaurrekoan. Udalak omen duen frontoia estaltzeko asmoari nola-bait aurre egin nahian. Luis Peña Gantxegik 1961ean egindako lanaren defendatzaile sutsu ageri dira. Hesia kentzea, probalekuko galtzada harriak berriro jartzea... Beste auzoetako jendearentzat ere izan behar omen du. Eta auzo hone-takoentzat?

Lehen Hezkuntzako testu liburu bat hartuko bagenu, haren arabera, parte zaharra hiriko erdigunean dago, kale estuak izaten ditu eta etxeak zaharrak dira, batzuetan berrituak. Hezkuntza

formal zein informalean dihardugunok badakigu zenbaitetan azalpenak ematerakoan, horren orokorrak egiterakoan, topikoetan erortzeko arrisku larria dugula. Umeei ez zaie azaltzen, ordea, parte zahar gehienetan antzekoa den giza deskribapena. Eta agian hortik hasi beharko genuke. Parte Zaharrak era askotako pertsonak biltzen ditu, asteburuetan parrandan datozenak, hiriko ospakizun nagusietan jai giroan murgiltzen direnak, kanpotik datozen turistak... Haiei begira zabalitzen dira hainbat merkataritza gune, zinema, museo, taberna...

Ezin aipatu gabe utzi kalezulo estu eta ahaztutuan babesa aurkitzen duten kaletar zein etorkinak. Eta auzotarrak;

haien batez besteko adinari zor die izena auzoak. Aisialdirako kontsumismo guneak eta tabernak besterik geratzen ez zaizkien gaztetxoak. Etxean arrotz eta aldarrikapenak mutu, auzo izaera ere ukatzen zaigu. Baina bada garaia auzotarrak hitza har dezagun.

Azken urteotan egin diren berriztapenek Trinitate plazaren fisonomia eraldatu dute, eta euskal tradizioko kirolen omeneko gunea izatearen jatorrizko ideia urrun geratu da. Baina auzotarrak beste behar batzuk ditugu. Izan ere, beste auzo askok dituzten kiroldegia ez dira inon ageri geurean. Kiroldegirik bagenu, ez lokego eztabaida beharrik.

Bolatokia aldagela bilakatu zen, kirola egiterako orduan ezinbesteko azpie-

gitura baita. Ez da egia kirolgune finkoa denik, hainbat kontzertu eta ekitalditarako egokitzen baita —Jazzaldia, Inauteriak, Aste Nagusia, Euskal Jaiak, Kulturartekotasun Jardunaldiak...—. Galtzadaren tokian areto futbolerako kantxa egokitu zuen, bai. Hala ere, arauzko neurriak ez ditu betetzen, eta euria egiten duenean patinaje artistikorako aproposa da.

Frontoia estaltzea aurrerapauso nabarmena litzateke, Euskal Herriak klima euritsua baitu. Ikastolari aurkakoa esan arren, frontoia estaltzeko proiekturik ez dagoela dioen alkateari lerro hauek atakausardia eta tinkotasuna eskatu nahi dizkiogu frontoiaren estalkia behingoz egin dadin. Egin dezagun Parte Zahar irekia, turistei toki egin eta etorkinei harrera egingo diena, hiriko festetarako prest, eta auzotarren beharrei erantzungo diena. Gu prest gaude.